

BEHIN BETIKO EBAZPENA

LAGUNTZEN DEIALDIA, 2024/2025 IKASTURTEAN UPV/EHUko IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK DOKTOREGO PROGRAMAREN MATRIKULA GASTUAK ORDAINTZEKO

2025eko maiatzaren 16an, Graduondoko ikasketen webgunean argitaratu zen 2024/2025 ikasturtean UPV/EHUko Ikasketa Feministak eta Generokoak doktorego programaren matrikula gastuak ordaintzeko laguntzen deialdia.

Deialdiaren 8.1 oinarrian xedatzen denez, Gradu eta Eraldaketa Digitalerako Errektoreordetzan eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, eta eskaera guztiak aztertu ondoren, onartu eta baztertutako eskaeren behin-behineko ebazpena argitaratu behar da deialdiaren 5.1 oinarrian adierazitako webgunean.

Hori horrela, behin-behineko ebazpenean onartutako eskaeren harira aurkeztutako alegazioak aztertu ziren.

Ondoren, laguntzen esleipendunek onarpena sinatu behar dute berariaz, eta hamar eguneko epean aurkeztu, behin betiko ebazpena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Baldintzak onartu izanaren dokumentua II. eranskinean jasota dago, eta Deialdien eta Laguntzen Unitatearen helbide elektronikora bidali beharko dute interesdunek (convocatoriasyayudas@ehu.eus). Izapide hori bete ezean, laguntzari uko egin zaiola ulertuko da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- - Deialdiaren 3. atalean adierazitako irizpideen arabera onartu eta baztertu diren eskaeren behin betiko zerrenda eta emandako laguntzen zenbatekoa argitaratzea, doktorego programaren matrikularako laguntzak emateko irizpideekin bat etorrira (6. atala), I. eranskinean jaso legez.

Bigarrena.- - Ebazpen hau Deialdiaren 5.1 atalean adierazitako webgunean argitara dadila agintzea.

Hirugarrena.- - Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta honako errekurtsio hauek jar daitezke haren kontra, baina inola ere ez aldi berean:

1.- Aukerako berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango zaio erabakia eman duen organoari, hilabeteko epean, erabakia deialdiko webgunean argitaratu eta biharamunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan ezarri legez.

Errekurtso hori jarritz gero, hilabeteko epean hari buruzko erabaki adierazirik ez badago, administrazioaren isiltasunagatik errekurtsoa ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, auzibidera jotzeko aukera zabalduko da, hurrengo puntuan azaltzen denez.

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Bilboko Epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena, 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2025eko ekainaren 20an.

Ainhoa Berasaluze Correa
GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO
ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE POSGRADO Y APRENDIZAJE PERMANENTE